

2. Zeregina. DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

Tarea 2. Plan de mejora de las competencias lectoras en la ESO.

Botika faltsuak Interneten

Posta elektronikoan jasotzen ditugun mezuen % 95 spam-a dira. Horietatik gehienak sendagaiak saltzeko dira, eta Internetez saltzen diren botika asko eta asko faltsuak dira. Hori jakinarazi du [Sendagai Seguruak Eskuratzeko Europako Itunak](#) (European Alliance for Access to Safe Medicines, EAASM), Europan saltzen diren sendagaien segurtasunaz arduratzen den elkarteak.

Elkarte horrek Internet bidez saltzen diren botikei buruzko [ikerketa](#) bat egin berri du, eta datu benetan interesgarriak plazaratu ditu. Hauek nabarmendu ditu elkarteak berak: sarean saltzen diren botiken hirutik bi faltsuak dira, Interneten dauden farmazien % 95,6 ilegalak dira, sendagaiak saltzen dituzten web guneen % 94k ez dute farmazialari baten izenik ematen, eta hamarretik bederatzik ez diote errezetarik eskatzen erosleari.

Dena den, kaleratu duten txostenean, askoz ere datu gehiago argitaratu dituzte; esate baterako, zer botika eskaintzen dituzten Interneten. Nagusiki, jende askori eragiten dioten gaitzak sendatzeko botikak eta botika salduenen nahiz garestien kopiak eskaintzen dituzte: zutitzearen disfuntzioak tratatzeko sendagaiak, ilea erortzearen aurkakoak eta argaltzekoak dira gehienak, eta baita minbiziaren aurkakoak, depresioaren eta buruko beste gaixotasun batzuen aurkakoak, zirkulazio-aparatuarekin zerikusia dutenak... ere.

Posta elektronikoan jasotzen diren mezueta asko botikak saltzeko dira.



Normalean, gaixotasuna isilean gorde nahi dutenek dute halakoak erosteko joera, baina horrek ondorio larriak ekar diezazkieke. Izan ere, txostenean azaltzen denez, botika faltsuek ez dute konposatu aktiborik izaten, edo ez dute behar duten dosian izaten. Kasu batzuetan, osagai toxikoak dituzte, edo ez dira behar den kondizioetan gordeta egon, eta, beraz, osasunerako kaltegarriak izan daitezke.

Kontuan izan behar da sendagai horiek inolako kontrolik gabe saltzen direla, eta erosleak ez duela profesionalen gomendiorik jasotzen: ez daki noiz, nola eta zenbat hartu behar duen. Horregatik, okerren bat gertatzeko arriskua handia da. Adibidez, duela hilabete eskas [Selena Walrond](#) izeneko gazte britainiarra hil zen, Interneten erositako

botika bat hartzeagatik.



Walrondek 26 urte zituen, eta Estatu Batuetan zein Europan saltzea debekatuta dagoen konposatu bat erosi zuen, dinitrofenola. Nonbait, kulturistek eta atletek hartzen dute, pisua galtzeko, eta neskak ere helburu hori zuen. Baina gomendatutako dosiaren halako bost hartu zuen, eta bihotzekoak emanda hil zen hurrengo egunean.

Ustez, Txinako web gune batetik eskuratu zuen konposatua. Hain justu, Internet bidez saltzen diren botika asko Txinako, Indiako eta Filipinetako laborategi ilegaletan egiten dituzte, eta baita Europaren ekialdean ere, Errusian esaterako.

GAIA/ASIGNATURA	Teknologia
MAILA/CURSO	DBH 3 eta DBH4
IKASTETXEA/CENTRO	Amazabal BHI
DEPARTAMENTUA/DEPARTAMENTO	Teknología
IRAKASLEA/PROFESOR / A	Pello Cestau
JATORRIA/FUENTE	
EGILEA/AUTOR	www.zientzia.net
IZENBURUA/TÍTULO	Botika Faltsuak Interneten
ARGIALETXEA/EDITORIAL	elhuyar
URTEA/AÑO	2008
ORRIALDEA(K)/PÁGINA	Artikulu bat da.
ISBN	

TESTU-MOTA/TIPOLOGÍA	
OINARRIA/SOPORTE	Texto impreso
FORMATOA/FORMATO	JARRAIA
MOTA/TIPO	Azalpenezkoa/Argudiozkoa
ERABILERA/USO	Publikoa
IRAKURKETAREN HELBURUA	
<ul style="list-style-type: none"> • Interneti buruzko hausnarketa egitea: <ul style="list-style-type: none"> ○ Internetak dituen alde ona eta txarrez jabetzea. ○ Interneten bidez saltzen duten enpresa askoren etika-ezaz jabetzea. • Internetak giza-harremanetan duen eragina ezagutu. • Merkatuak urteetan zehar izan dituen aldaketez jabetzea. 	
ESTRATEGIAK/ESTRATEGIAS DE LECTURA	
IRAKURRI BAINO LEHEN ANTES DE LA LECTURA	<p>1. Aurretiko ezagupenen aktibazioa</p> <p>a) beraiek dakitenaren aktibazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Galdetu zenbat erabiltzen duten interneta astean zehar. - Galdetu zertarako erabiltzen duten interneta - Galdetu zer gairi buruz bilatzen duten informazioa <p>b) irakasleak gaineratu dezaken informazioa: Farmatzietan normala den funtzionamendua, errezetak, botikariaren papera...</p> <p>2. Irakurketaren helburua zehaztea</p> <p>3. testua bera, izenburua eta argazkiak ikusirik iragarpenak egitea.</p>
IRAKURRI BITARTEAN DURANTE LA LECTURA	<ul style="list-style-type: none"> - Testua gainetik irakurri eta...hipotesiak garaztea <ul style="list-style-type: none"> ○ Zertaz doan galdetu. ○ Ezagutzen ez dituzten hitzak azpimarratu. ○ Galdetu: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Zer da spam? ▪ Zer da konposatu aktiboa? ▪ ...

		- Paragrafoka irakurri eta ideia nagusiak atera
IRAKURRI ONDOREN DESPUÉS DE LA LECTURA		<ul style="list-style-type: none"> - Testu osoaren ideia nagusia atera. - Galdetu ea ezagutzen duten norbait (edo beraien artean) internet bidez saldu edo erosten duenik. - Jarrera kritikoa aktibatu: <ul style="list-style-type: none"> o Internet bidezko salerosketen alde onak eta txarrak. o Galdetu ea ezagutzen duten esperientzia txarren bat izando duena (interneteko edozein esparruan...- adib. txat-en bidez...-)
JARDUERAK/PROCESOS LECTORES		
Informazioa bilatzea edo eskuratzea RECUPERAR - OBTENER INFORMACIÓN	1.	Zer botika mota eskeintzen dituzte interneten?
	Erantzuna Respuesta	<i>Jende askori eragiten dioten gaitzak sendatzeko botikak.</i>
	2.	Non egiten dituzte internet bidez saltzen diren botika asko?
	Erantzuna Respuesta	<i>Txinako, Indiako eta Filipinetako laborategi ilegalean.</i>
	3.	Sarean saltzen diren botiken zer potzentaia dira faltsuak?
Erantzuna Respuesta	<i>Saltzen diren hirutik bi.</i>	
Ulermen orokorra COMPRENSIÓN	1.	Egin ezazu testuaren laburpen txiki bat, gehienez 10 lerrotan.

GLOBAL	Erantzuna Respuesta	<i>Europar saltzen diren sendagaien segurtasunaz arduratzen den elkarteak jakinarazi duenez, interneten dauden farmazien ia %96a ilegalak dira. Honetaz gain, interneten eskeintzen diren botika gehienak, jende askori eragiten dioten gaitzak sendatzeko botikak dira eta gaixotasuna ixilean gorde nahi dutenek dira gehiengoak. Kasu batzuetan, botikek osagai toxikoak dituzte. Adibide moduan, pisua galdu nahi zuen neska britaniar bat hil zen kulturistek hartzen duten produktu bat hartuta. Gomendatutako dosiaren halako bost hartu zuen. Txinako web gune batetik eskuratu zuen konposatua.</i>
	2.	Emaiozu testuari beste izenburu bat, testua irakurtzea animatzeko helburuarekin.
	Erantzuna Respuesta	- <i>Kontuz internetarekin!!!!</i> - <i>Neska bat hil da internet etik erositako botika batekin.</i> - <i>Interneten dauden farmazien %96a ilegalak dira.</i>
	3.	Nori dago zuzendua testuaren informazioa?. Egin gurutza erantzunean.
Erantzuna Respuesta	<input type="checkbox"/> <i>Adineko pertsonei(jubilatuei)</i> <input type="checkbox"/> <i>Nerabeei (adoleszenteei)</i> <input checked="" type="checkbox"/> <i>Edozeini, baina bereziki interneta erabiltzen dutenei</i> <input type="checkbox"/> <i>Gaixorik daudenei</i>	
Interpretazioa garatzea DESARROLLAR LA INTERPRETACIÓN	1.	Zure ustetan, zer arazo zeukan Selena Walrond-ek?
	Erantzuna Respuesta	<input checked="" type="checkbox"/> <i>Bera lodi sentitzen zen</i> <input type="checkbox"/> <i>Kirola egiteko mehatu beharra zeukan</i> <input type="checkbox"/> <i>Lankideek farre egiten zioten</i> <input type="checkbox"/> <i>Zerbait berria frogatu nahi zuen, besterik gabe.</i>
	2.	Testua idatzi duenak...
	Erantzuna Respuesta	<input checked="" type="checkbox"/> <i>internet bidez erosten diren botikez ez fidatzea eskatzen du</i> <input type="checkbox"/> <i>ekialdeko botikarik ez erostea eskatzen du</i> <input type="checkbox"/> <i>bakoitzak nahi duena egitea proposatzen du</i> <input type="checkbox"/> <i>informazioa ematen du, besterik gabe</i>

Formaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN FORMA	1.	Testua internetetik jeitsita dago eta fotokopietan ez bada ikusten ere, “Selena Walrond” izena urdinean agertzen da. Zergatik?
	Erantzuna Respuesta	<input type="checkbox"/> Bere izenaz errezago oroitzeko <input type="checkbox"/> Ezezaguna delako <input type="checkbox"/> Hobeki ikusteko <input checked="" type="checkbox"/> Link bat da (bere izenean klikatu eta berari buruzko informazioa du)
	2.	Izenburuaren azpian dagoen paragrafoa, letra etzanekin eta ilunago ikusten da. Zergatik?
	Erantzuna Respuesta	<input type="checkbox"/> Testua erakargarriagoa egiteko <input type="checkbox"/> Nire ustez, ez du helburu zehatzik <input type="checkbox"/> Hobeki ikusteko <input checked="" type="checkbox"/> Begiak bertara joateko eta testuari fidagarritasuna emateko
	3.	Testu-orriaren beheko argazkian ikusten da, botiken ingurua askoz ilunago dagoela. Uste duzu baduela esanahi berezirik?
	Erantzuna Respuesta	<input checked="" type="checkbox"/> Itzala horrekin ematen du pilula horiek ez direla fidatzekoak <input type="checkbox"/> Pilulen ontzien itzala da <input type="checkbox"/> Itzalak ez du forma hori baina politago gelditzen da <input type="checkbox"/> Nire ustez ez du esanahi berezirik
Edukiaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN CONTENIDO	1.	Zergatik daude hainbeste laborategi ilegalak Ekialdean?
	Erantzuna Respuesta	<input type="checkbox"/> Eskulana merkeagoa delako <input type="checkbox"/> Informatika munduan oso aurreratuak daudelako <input type="checkbox"/> Bertako jendea txikiagoa denez, erraz gordetzen da <input checked="" type="checkbox"/> Hango lege eta osasun kontrolak ez dira zorrotzak
	2.	Testugileak dio, interneten dauden farmazien %95,6 ilegalak direla. Zure ustez, zergatik jarri du datu hau?
Erantzuna Respuesta	<input checked="" type="checkbox"/> Bere ustetan, oso portzentai handia da eta kontuz ibili behar dugu. <input type="checkbox"/> Datua jarri izan arren, ez da aipagarria. <input type="checkbox"/> Datu horrekin, testugileak internet bidez erostea animatzen gaitu <input type="checkbox"/> Berdin zen datu hori ez balu jarri ere.	

PRAKTIKAN JARRI/PUESTA EN PRÁCTICA - OHARRAKOBSERVACIONES